

Emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan arreta integrala eta koordinatua eskaintzeko asmoz, Mungiako Udalak protokolo honeek daukaz:

1. *“Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dabean emakumeei eskaintako arreta koordinatzeko tokiko protokoloa”*, 2009ko martiaren 31n Mungiako Udalak aho batez onartua. Sei hilabeteko lan-prozesu baten emaitza izan zan, eta indarkeria jasan daben Mungiako emakumeei eta haren senitartekoei arreta eskaintzen deuten sareko partaideakaz batera landu zan. Protokolo honetan, indarkeria-egoeretan bete beharreko funtzinoak eta jarraitu beharreko prozedurak ezartzen dira, beti bere aurrez adostutako jarraibideak bermatzeko eta, hala, biktimei arreta egokia eskaintzeko eta biktimak kasuan kasu jagokeen eskumena daukien zerbitzuetara bideratzeko (Ertzaintza, Gizarte Zerbitzuetarako Mungialde Partzuergoa, San Jose Etxe Alai Fundazioa eta Mungiako Udala, azken horretako partaideak diralarik Udaltzaingoa eta Bardintasunerako Zerbitzua; geroago, Osakidetza bere sartu zan kideen artean). Labur esanda, protokolo honek hainbat erakunde koordinatzeko bidea emoten dau, alkarren osagarri izan daitezcan eta, hala, jarduera integrala eskaini gura danean batzuen eta besteen ahaleginak eta baliabideak bateratzeko.
2. *“Genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoren kasuetan koordinatzeko udal-protokoloa”*, 2013ko zezeilan onartua. Protokolo honetan, biktimei eta haren senitartekoei arreta eskaintzeko prozesuaren fase desbardinetan parte hartzen daben udal-zerbitzuek egin beharreko informazio-trukearen ibilbidea zehazten da.
3. *“Etxeko indarkeriaren, genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen kasu larrietarako jarraibidea”*, 2013ko zemendian onartua. Protokolo honetan, kasu larrietan modu sistematizatu eta antolatuan jarduteko jarraibideak eskaintzen dira.